

“Euskal baserrietan higienerik ez izatea ez da soilik gure lurraldearen ondarea, munduko landa-eremuko etxebizitza guztiena baizik” (On Vicente Lafitte, 1927)

Piezen Aurkezpena.

1-Orinala

Pixa jasotzeko erabiltzen den ontzia da. Zeramikaz egindako ontzia da, oinplano laua eta zilindro forma dauka. Goiko aldean aurrez aurreko bi helduleku ditu. Gorputz erditik gora esmalte zuria dauka eta baita barnealde osoan zehar. Oinarrian hirusta lorea dauka marraztuta zeramikan bertan.

Ontzi mota honek erabilera higienikoa zuen, eta baserrietan oso oinarritzko egitura eta formak izaten zituzten. Ez zuten bestelako ikusgarri artistikorik izaten. Gainera, *“gauontzia”* bezala ere ezagutu izan da Euskal Herriko zenbait lekutan.

Orinal hau XX. mende erdialdekoa da. Jatorriz Zegamakoa da, bertako Gregorio Aramendi Arregi zeramikagileak egina. Dirudienez, ontzi honek ez du erabilerarik izan, hau da ez da baserrietan erabili. Gregorio Aramendik Gipuzkoako Foru Ahaldundiak eskatuta egin zuen, honelako zeramikazko piezak nola egiten ziren erakusteko. Dena den, baserrietan honelako orinalak erabiltzen ziren, eta beraz gaur egun horiek nolakoak ziren irudikatzeko eta ezagutzeko balio digu, gure historiaren ondare bezala.

Gregorio Aramendi:

Gregorio Aramendi Zegamako azken ontzigilea izan zen. Biziraupenagatik utzi behar izan zuen bere ontzigile ofizioa eta taxista lanetan hasi zen. Hala ere, buztzingile apart honen ibilbidea ez zen bertan amaitu. 1980. hamarkadan Gipuzkoako Foru Aldundiak buztzingintzako irakasle gisa kontratatu zuen.

2- Konketa

Konketa edo azpila eskuak eta aurpegia garbitzeko erabiltzen zen ontzia zen, pitxarrarekin batera. Eta logelan bertan egon ohi zen. Hemen daukagun konketa zeramikazkoa da. Diametro zabal eta sakonera duen ontzia da, urez bete ahal izateko.

Konketa hau jatorriz Zumarragako Soraitz baserrikoa da. Ibon Telleria arkitektoak, baserrien inguruko ikerketa harira, baserri ugari bisitatu izan ditu, eta ondorioz baserriaren historia eta bilakaera erakusten duten objektuak biltzen joan da. Horietako bat da konketa hau. Gordailuak (Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa) 2006ean erosketa bidez eskuratu zuen lote batean. Gaur egun Gipuzkoako Kultur Ondarearen zati da.

3- Eskuoihala

Liho zuriarekin eginiko eskuoihal angeluzuzena da. Eskuoihal hauek aurpegia eta gorputzeko beste edozein zati lehertzeko erabiltzen ziren. Bi muturrak loreen irudiez osaturiko frisoz apainduta ditu.

Eskuoihal hau Goruzaleok elkartearen bildumako pieza bat da, 2013an Gipuzkoako Foru Ahaldundiak eskuratu zuena. Jatorriari dagokionean ordea, ez dakigu zein herri eta baserrietatik datorren. Hala eta guztiz, esan liteke ohikoa zela baserrietan

ZERGATIK PIEZA HAUEK?

Hasiera batean, harrigarri gerta dakiguke hiru pieza hauek Igartubeitin erakusgai jarri izana; hots, XVI. mendeko euskal baserri dolare baten itzalpean iduri lezake lekuz kanpo daudela. Edota behintzat, esan daiteke, Igartubeiti edo XVI.mendeko baserria aipatu eta ez direla burura datozkigun lehen objektu edo elementuak.

Alderdi artistikotik ere, egia esan ez dute halako balio berezi, esanguratsu edo erantsirik. Eta orduan zergatik aukeratu pieza hauek Musealiak proiekturako?

Orokorrean baserriaz mintzo garenean honi lotu izan zaizkion gai, elementu edota alderdietan oinarritzen gara: nekazaritza, arkitektura, abeltzaintza, artzaintza... Hau da, baserriaz eta bizimodu horri loturiko baserriarren historiaz mintzatzeko elementu eta alderdi

zehatz batzuk hartu izan dira euskarri eta irizpide bezala. Egunerokotasuneko beste zenbait alderdi ordea, zaintza lanak esaterako, bigarren maila batean edo itzalpean geratu dira. Higienea eta zaintza lana horien artean.

Aukeratu ditugun hiru pieza hauek lotura estua dute garbitasunarekin. XVI. mendetik XX. mende erdialdera arteko baserriarren eguneroko bizimodu horretara gerturatzeko beste bide bat irekitzen digute garbitasunarekin lotura duten pieza hauek. Orinal, konketa eta eskuohial hauen bidez, isilean mantendu den baserriaren alderdi “ilun eta zikinaz” hitz egin dezakegu.

Hiru objektu hauen bitartez baserri barneko bizitzaren nolakotasuna ezagutuko dugu, higiearen begiradatik. Objektu hauek normalean erakusten ez den historiaren berri ematen digute. Hau da gure gizartearen bilakaeraren lorratzak ezagutzeko aukera ematen dute. Izan ere, nolakoa ote zen higiea eta garbitasuna XX. mende hasiera arte gure baserrietan, esaterako Igartubeitin? Galdera horri argi pixka bat ematen diote hiru pieza hauek.

1-Baserria eta garbitasuna.

Irudikatzen al duzue XVI-XVII. mendeetako etxebizitza batean bizitza zein modutakoa izango zen?

Gaur egun dugun garbitasunaren ideia eta praktikarekin alderatuz, irudikagaitza litzaike ziurrenik garai hartako egunerokoan izango zen etxe barruko giroa: kea, animaliak, usaina, bizitzeko espazio murrizta...

Baserriaren kanpoko ikusmirak edo barnekoak oso egoera ezberdina erakusten dute. Baserriaren zurezko edo harrizko horma sendo eta ikusgarri horiek, bestelako mundu bat ezkututzen zutela esan daiteke.

Baserriaren deskribapena egiterakoan, kanpoko itxura estetikoa izan da oinarria. Baserriaren arkitekturak, berezia eta harrigarria dena ezberrik gabe, hartu izan du zentralitatea. Bere zurezko gorputzak, harrizko hormek eta bere dimentsio erraldoiek begirada oro bereganatu izan ditu, zenbaitetan irudi erromantiko edo bukoliko bat sortzeraino. Bidaiari atzerritar askok azpimarratu izan zuten XIX. mende amaiera eta XX.

mende hasieretan baserriaren itxurazko edertasun eta handitasun hura. Hortxe ditugu Humboldt, Baschlin, Louis Petit de Meurville edo Juan Mañé y Flaquerrek utzitako zenbait testigantza esate baterako.

Iparragirreraren bertsoek ere honela zioten *“baserri eder, txuri-txuriak”* edota Campionen metaforak baserria *“belazeko uxozuria”* bezala deskribatzen zuen baserria. Baina zein leku zuten higieak eta garbitasunak baserri haietan? Nolakoa zen barreneko egoera?

Egiari zor, baserriak sortzetik, XV. mendetik, ez ziren bizitza eroso eta garbi baterako sortutako eraikinak. Espazio handi horien arrazoia lana izan da. Baserriak lanerako eraikitako espazioak izan baitira. Etxeko bizitza egiteko espazioa zatirik txikiena zen, sukalde eta logela kozkor batekin bakarrik. Laburbilduz, ez ziren bizitzeko etxebizitza erosoak, gaur hala uste badugu ere, eta horren adibide garbia Igartubeiti baserria bera dugu.

XVI. mendetik XX. mendera arteko baserri barneko bizitza ez zen xamurra izango baserriar haientzat. Familia handiak eta bizitzeko espazio gutxi. Gainera, sukaldea kenduta, gainerako txokoak leku hotzak ziren, haize-lasterrez beterikoak.

Aipatu moduan lanerako espazioa izaki, erosotasunerako, higienarako edota garbitasunerako espazioak bigarren mailakoak ziren. XVI. mendetik XX. mende hasiera aldera arte, egia esan baserri barreneko eta higienari eta garbitasunari dagokionean egoera ez zen askorik aldatu.

Baserri haiek argitasun gutxiko etxeak ziren. Horma sendoak eta kristalik gabeko lehioak ziren. Argi naturala sartzeko lehio guztia ireki behar zuten beraz, baina, argiarekin batera hotzarentzako sarbidea ere baziren haiek, eta beraz, nahiago zuten iluntasuna hotza baino. Iluna eta hotzak beraz. Erosotasun eta osasun gutxiko lekuak alegia. Tximiniarik gabeko baserriak ziren gainera. Eta beraz, hotzari eta iluntasunari kea gehitu behar zaio. Giro ezin hobea higie eta garbitasunari dagokionean gaixotasun eta osasunari dagokion oinazeak izateko. Igartubeiti baserrian, 1944 arte ez zen sukaldean tximiniarik jarri. Ikuluak ere ez zion egoera horri mesede handiegirik egingo, ez eta familia guztiarentzako logela bat edo pare bat izateak ere.

Gaur egun guretzat pentsaezina den arren, aipatu ditugun mendeetan baserriek ez zuten komunik. Eta honekin esan nahi da, baserrian ez zegoela espazio zehatz bat garbitasunari loturikoa. Hutsune horrek asko esan nahi du. Hau da baserrietako eguneroko bizmodu horretan higieak eta garbitasunak ez zuela aparteko garrantziarik.

Komunik gabe, beraien beharrak egiteko lekua ukuilua zen. Ez zegoen beraz bereizketarik. Ikuiluko ximaurtegia zen familiaren komuna. Berezitasun bezala, badirudi batez ere ikuluia komun bezala gizonezkoek erabiltzen zutela, eta emakumeak berriz etxetik kanpora irteten zirela beraien egin beharrak burutzeko. Igartubeitiren kasuan ikuiluak eta dolareak baserriaren espaziorik handiena hartzen dute. Ikuiluari dagokionean, beheko oineko zatirik handiena izaten zen. Baina baita zikinena ere eta higiene gutxienekoa ere. Kontuan izan behar da zorua lurrezkoa zela. eta beraz hezetasun eta hondakin multzoarekin dena bertan nahasten zela. Kanalizazio nahikorik ez zuten eta beraz dena bertan pilatzen zen. Baserri guztian zehar giro desatsegin bat zabaltzen zuen ikuiluak, gas nitrogenatuz osatua.

Ikusgai jarri ditugun hiru pieza horiei erreparatuz gero, ohartuko gara ez direla objektu handiak, eta beraz erraz mugitu daitezkeela leku batetik bestera. Horregatik objektu hauek ez zuten leku finkorik baserrian, eta beraz leku ezberdinetan kokatzen ziren, garbitasunerako toki zehatzik izan gabe. Konketari dagokionean, gehienetan logelan egoten zen, eta batez ere eskuak eta aurpegia garbitzeko erabiltzen zen. Ondoan lihozko eskuoihal bat egoten zen. Gorputz osoaren garbiketari dagokionean, bestelako azpil edo barrinói handiagoetan egiten zuten, eta askotan ur hotzarekin.

Bestalde, etxean urik ez zutela ere gogoan izan behar da. Beraz, egunero ibai ertzetik edo etxe inguruetan zituzten erreka eta putzuetatik ekarritako urarekin moldatzen ziren. Askotan gainera ur hori ere ez zen oso garbia izaten, eta gaixotasun iturria ere izan zitekeen.

Orinala ere ziurrenik logelan egongo zen, eta batez ere gau aldera erabiltzen zuten. Horregatik "gauontzia" bezala ere ezagutzen zen. Izan ere, bestela gauean iluntasunean ikuilura joan beharko zuten egin beharretara. Hondakinak ukuiluko ximaurtegian pilatzen zituzten.

Laburbilduz, XV. mendean eraiki ziren baserri haiek, XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera arte, barenko bizimoduari dagokionean bere horretan iraun zuten. Eta higieneari eta garbitasunari begiratzen badiogu hare gehiago. Baserriek ez zuten higieneari eta garbitasunari eskainiko leku zehatzik. Garbitasunaren alorra oso murrizta zen, eta esan liteke ikusgai dauden hiru objektu horietaraeta antzeko beste zenbait objektuetara mugatzen ziren. Gaur egungo komunaren, garbitasunaren eta higieneari auzia XX. mendetik aurrera txertatu zen euskal Baserrietan.

Añibarro medikuak eta 1930ean Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentea izan zenak, 1902an honela idatzi zuen, Gipuzkoako baserrien higiene egoera zela eta:

“Una sola ojeada al interior de la mayoría de nuestras las casas de labor, basta para convencernos de la absoluta falta de higiene”

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da higienearen auziari dimentsio sozial, politiko, historiko eta ekonomikotik begiratu behar zaiola. Hau da, hemen landu dugun baserriaren eta baserritarren egoerak ez du esan nahi baserritar haiek nahita zirela zikinak, edota higiene eta garbitasunari dagokion kontuetan ezjakinak.

2-Baserriaren higienizazioa XIX. mende amaiera eta XX. mende hasieran.

Euskal lurretako baserrian higienizazioari bidea irekitzeko oinarrizkoak diren hiru elementu topa ditzakegu: airea, ura eta argia. Hala ere, ikusi dugun moduan, euskal baserriaren higienizazio prozesua gertakari historiko nahiko berria izan da.

XIX. mendean emandako industrializazioaren eraginez, aldaketa ekonomiko handiak eman ziren eta gizarte desorekak ere areagotu egin ziren. Testuinguru horretan, Europa osoan garbitasunarekin eta osasun publikoarekin lotutako hausnarketa eta idatzi ugari ageri dira, beti ere hiriguneetan eta langile klaseari loturik. Kontuan izan behar dugu, industrializazioan arazo sozial eta higienikoak areagotu egin zirela. Hori dela eta, mediku askok arreta jarri zuten sortutako arazo horiei aurre egiteko.

XIX.mendean hasi ziren aldaketa sozial hauek -moral higienistaren garapena, eraikinen berritze eta higienizazioaren garrantziaren gorakada,...-, esan bezala, hasiera batean hirian hasi ziren, nagusiki industria garatu zen eremuetan. Kontuan izan behar da, euskal lurretan ere, industrializazioa modu oso ezberdinetan garatu zela, eta horrek eremu bakoitzaren higienizazio prozesuan ere bide ezberdinak ireki zituela.

Adibide bat jartzearren, Erriberatik Gasteizko industriara lanera emigratzen zuten nekazariak arriduraz hartu zuten hiriko biztanleen ohitura bat: euren beharrak eserita egiten zituzten! Antza, gerrostean, nekazari hauek herrietan oraindik ere gizonek euren beharrak soroan egiten zituzten eta emakumeek ikuilu bazterrean. Komunak soilik, apaizetxeetan edota irakaslearen, botikariaren, medikuaren edo dirudunen baten etxean besterik ez zeuden.

Ziurrenik herri askotan, esku bakarreko atzak beharko zituzten bertako komunak zenbatzeko.

Gipuzkoan ere, Joxe Miel Barandiaranek biltzen duenez, II. Gerra Karlista baino lehen soilik 3 komun zeuden Ataunen, eta 1926ean Arin Dorronsorok zioen Ataunen 5 etxek zutela komuna eta eta hauetatik batzuek soilik ura. Hamarkada gutxitan ordea, aldaketa handia eman zen euskal baserrietan. 1950.hamarkadatik aurrera baserri gehienetan hasi ziren komunak egiten, eta ondorengo hamarkadetan Euskal Herriko igeltxeroek komunetako obrak egitea izan zuten lan nagusia. Eta honela, apurka-apurka gaur egun ezagutzen dugun komuna eta dugun garbitasunaren gaineko ideia ezartzen joan ziren.

Hala ere, aurrez esan bezala, prozesu hau ez zen ez makala izan. Luzea eta zaila izan zen. Ikusi dugunez, 50.hamarkadan hasi ziren etxebizitzetan higienizatze prozesu orokorrak ematen, baina bazauden aurrez ateratako ordenantza ugari hamarkada batzuk lehenagokoak.

Hona hemen 1929ko Gipuzkoako Ordenantza hauek:

Higienización de caseríos

ART. 29. Al objeto de estimular la higienización de la habitación rural en esta Provincia, la Excelentísima Diputación consignará anualmente en sus presupuestos la cantidad que estime prudencial para distribuirla entre los propietarios que en la construcción, reedificación o reparación de fincas rústicas se ajusten a las siguientes normas de higienización.

ART. 30. Las construcciones y reedificaciones totales de caserías, se ajustarán exactamente a las reglas establecidas en los precedentes artículos de estas Ordenanzas de construcción rural.

En las reformas y ampliaciones de caserías, será indispensable, para que puedan ser objeto de subvención, además de la separación de la vivienda y el establo, que éstos se construyan en las condiciones establecidas en las Ordenanzas de construcciones rurales y que en las condiciones de las viviendas, se cumpla por lo menos lo dispuesto en los artículos 7.º, 8.º, 9.º, 14 y 15.

Ikus daitekeen moduan, instituzioetatik bada eskaera eta joera bat baserriak higienizatzekoa. Baina, etxe hauetan bizi ziren baserriar gehienek ez zuten egin beharreko obra hauetan eskumenik. Zergatik? Bada, ez zirelako etxearen jabeak bertan bizi arren. XX. mende hasieran, baserriar ugari bizi zen errentan. Egoera hobeto ulertzeko, Ezkioko apaiz jauna izan zen Sinforoso de Iburgurenen hitz batzuk ekarriko ditugu gogora:

“Otra de las causas son las malas condiciones de vida en los caseríos: muchos no han tenido desde que fueron construidos, más reparaciones que algunos retoques del inquilino que ignora si el próximo día de San Martín (día señalado en la población rural para ocupar y desocupar las casa) residirá o no en el caserío: se ven edificios tan destartados que sus propietarios no se aventurarían a pasar en ellos una noche, aunque les pagaran dos seguros de vida, por no ofrecer ninguna seguridad el edificio; pero el pobre casero vive un año y otro...toda su vida, allá donde vivieron sus mayores, lleno de fe, encomendándose a la Providencia Divina cada día, pues las demandas de reparaciones dirigidas al propietario o al administrador no suele ser atendidas, y cuando lo son, es a condición de que el inquilino contribuya en parte a los gastos y de que pague una renta mayor desde el año siguiente”

2.1. Uraren auzia

Laffitek 1929an Gipuzkoako Foru Ahaldundiarentzako idatziriko *“La higienización de la vivienda rural”* lanean, orokorrean baserriek higiegi egoki baterako beharrezkoak diren elementu guztiak zituztela aipatu zuen; hots: ura, argia eta airea.

Higiegiaren alorrean ura ezinbesteko elementua da. Ura, baserri inguruetan ugaria izan arren, etxean bertan ez zuten ur hornidurarik. Azken batean, XX. mende erdi aldera arte baserriek ez zuten gaur ezagutzen dugun zuzeneko ur hornidurarik.

Ondorioz, goizetan familiako kideren batek, emakumezkoak hain zuzen ere, ur bila joan behar izaten zuen inguruko putzu eta errekatxoren batera. Ur baserriko eguneroko bizitzarako ezinbestekoa zen, baina aldi berean mugatua zenez ondasun preziatua ere bazen. Ongi neurtu behar baitzen bere erabilera. Baina ur honek, bere onurak izanik ere, gaixotasun askoren iturri ere bazen. Kontutan izan behar da ura ez zela tratatzen

Sozialki eta historikoki garbitasunaren auzia landa eremuan eta orokorrean gizarte estrukturari dagokionean emakumezkoarengan ezarri den ardura izan da. Esate baterako

baserrietako emakumeek, ohiko baserriko lanezgain, diru iturri gehigarri bezala arropa garbitzaile edo latsari bezala lan egiten zuten. Ibai ertzetan hirietako familia aberatsen arropa garbitzen zuten, eta arropa eta ur horren bitartez hiritik baserrira edota alderantziz gaisotasun ugari transmititzen ziren. Nolabait esatearren, ura gaixotasun ugariaren garraioidea zen. Hargatik zuten urarekiko ikuspegi mesfidati hori.

Esan bezala, uraren auzi hau XX. mendeko 20. hamarkadatik aurrera hasi zen poliki-poliki hobetzen edota zehatzago esan da arautzen. 1929. urtean Gipuzkoako Foru Ahaldundiak baserriaren higienizaziorako ordenantzetan argiki azaltzen zuen uraren auzia. Bertan ur zikinak etxetik kanpora bideratzeko eta biltzeko beharrezko neurri, egitura eta baliabideak zeintzuk izan behar duten eta nola egon behar duten zehazten du. Bereziki ur zikinak aipatzen dira bertan. Esan bezala, egunerokotasunean baserriko bizitzan ura garbitasunerako ezinbestekoa zen, bai gizakiarentzat eta baita etxeko bestelako alorretan ere. Eta beraz ur zikin ugari pilatzen zen bertan, gaixotasun iturri. Horregatik ordenantzetan modu argian azaltzen da, ur zikinen auzi hau nola antolatu behar zen baserrian.

ART. 14. Los depósitos de materias fecales y aguas residuarias se construirán separados del caserío, con materiales impermeables, y serán de la categoría de sépticos, con exclusión absoluta de los pozos negros,

— 6 —

y proporcionados al número de individuos que habiten en el caserío.

ART. 15. Los fregaderos y retretes desaguarán sus productos en dichos depósitos sépticos, por medio de tuberías que habrán de ser de gres, cemento u otra materia impermeable.

ART. 16. Los fregaderos se colocarán en la cocina o próximos a ella; los retretes podrán estar adosados al edificio, comunicándose con éste por medio de una puerta.

En las caserías que tengan instalación de agua potable, se dotará inexcusablemente, a los retretes y fregaderos, de sifón hidráulico.

ART. 17. En las caserías que se construyan con sótanos, se establecerán ventanas de suficientes dimensiones en el espacio comprendido entre el terreno y la planta baja, para que los sótanos tengan la necesaria luz y ventilación.

Aurrez esan bezala, ordenantza hauek etxejabeei zuzendutakoak ziren. Baserritarrek, maizter egoeran zeudenez ez zuten hauek burutzeko bete behar juridikorik, hau etxejabeen eskumena zen.

Baina eraldaketa behar handiena ordea baserritarrek beraiek zuten. Eta XX. mende hasieratik aurrera, egoera ekonomiko eta soziala aurka izanik ere, beraiek izan ziren baserriak higienizazioaren bidean jarri zituztenak. Baserri haietan bizitzeko baldintzak hobetu zituzten.

Hobekuntza hau batez ere ur horniduraren bidetik etorri zen. Baserritarrek urte haietan egin ahalak egin zituzten baserrietara ur korrontea ekartzeko, eta mende ugariko etxe haiei gaurko doikuntza eman ahal izateko. Pedro Berriochoa antropologo eta historialariak honela azaltzen du auzi hau *“Como un jardín. El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX”* lanean:

“Las mejoras, en la medida de lo posible, fueron hechas por los colonos: roturar, convertir argomales en prados, agrandar la cuadra, traer agua y electricidad, adecantar la cocina, etc. Fueron ellos quienes dieron valor a los caseríos. Fueron ellos quienes levantaron nuestro jardín provincial, mientras sus grandes dueños vivían en Madrid, en Iparralde, en Granada, en San Sebastián, gastando como príncipes la renta que sus viejos caseríos no podían otorgar”.

Baserriak ur korrontearekin hornitzeak, higiena eta garbitasunaren alorra hobetzea ekarri zuen. Eta honekin etorriko ziren gaur ezagutzen ditugun komun eta antzerakoak, bere toki eta gailu zehatzekin.

3- Zer da gaur egun higiena?

XXI. mendeko gizartean higienieak garrantzi handia du, eta auzi hau prozesu soziokultural, politiko eta ekonomiko baten baitan ulertzea ezinbestekoa da. Eta gaur egun, zer esan dezakegu higienieaz pandemia mundial baten itzalean? Higienieak aldaketa ugari izan dira, begiratu besterik ez dugu pandemiak gure egunerokoan izandako eragina: musukoak, garbitasun arauak, distantziak, etab. Higienean emandako aldaketa orok, gure bizitzan eragin zuzena du, osasun alorretik haratagoko eremu ugari ere ukitzen baititu. Baserriaren

higinizazioaren kasuan ikusi dugun moduan, higie-neak kulturarekin, ekonomiarekin eta politikarekin lotura zuzena du.

Bibliografia:

- Azcárate, P. B. (2012). *Como un jardín. El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX* (Doctoral dissertation, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea).
- De Iburguren, S (1927) *Pueblo de Ezquioga*. Anuario de Euskal Folclore - Euskal Folklorearen urtekaria, 7º.
- Pounds, N. J. G. (1992). *La vida cotidiana: historia de la cultura material*. Crítica.
- Vigarello, G. (1991). *Lo limpio y lo sucio: la higiene del cuerpo desde la Edad Media*. Madrid: Alianza Editorial.

Beste iturri batzuk:

- Agirre, A. (2006/01/06-13). La higiene. Euskonews & Media. <https://labur.eus/RtKXN>
Ikusia: 2021ko irailaren 14a